



# KULTURA SORMENA

2021-22 DIRULAGUNTZA

**KULTURA  
SORMENERAKO  
DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO DEIALDIA  
ETA OINARRIAK**



**Getxo**  
*bizi ezazu*



**Getxo**  
KULTUR ETXEA  
*bizi ezazu*

Getxoko Kultur Etxeak kultura sektorea eta tokiko arte-sormena sustatzeko 2021-22ko deialdia martxan jarri du, **askotariko modalitateetan: sorkuntza eszenikoa (antzezlanak, bisualak eta plastikoak), ikus-entzunezkoak, musika, literatura, ilustrazioa, hezkuntza eta beste diziplina batzuetako obrak.**

# Helburua

Deialdi honen xedea **Getxoko udalerrian artelanak egitera zuzendutako sorkuntza prozesu zehatzak garatu nahi dituzten getxotar guztiei laguntzea** zein udalerrri honi lotutako mota honetako proiektuak garatzeko interesa duten pertsonen laguntzea ere.



# Diru-laguntza lerroak

**a) Sorkuntza eszenikoa:** edozein motatako testu eszenikoen dramaturgia, dantza-koreografiaren diseinua, txotxongiloen lanak.

Zenbatekoa: 12.000 euro, 4 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**b) Ikus-entzunezko lanak sortzea:** ikus-entzunezko proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), edozein formatutarako, eta pieza artistikoak filmatzea eta editatzea.

Zenbatekoa: 9.000 euro, 3 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**c) Musika-konposizioak sortzea:** partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza artistikoak grabatzea eta editatzea.

Zenbatekoa: 21.000 euro, 7 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**d) Literatura-lanak eta ilustrazioa sortzea:** eleberria, ipuina, poesia, narrazioa, komikia, haurrentzako obrak. Diseinu grafikoa ez da barne hartzen, eta obra guztiak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira.

Zenbatekoa: 24.000 euro, 8 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**e) Hezkuntzako proiektu kulturalak sortzea:** umeei eta 16 urtetik beherako gazteei zuzendutako proiektuak, helburutzat dutenak ume zein gazteak sorkuntza artistikoko prozesura gerturatzea, betiere bitartekotza artistikoko prozesuak lehenetsiz.

Zenbatekoa: 9.000 euro, 3 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**f) Obra bisualak eta plastikoak sortzea,** honako diziplina hauek barne hartzen dituztenak: pintura, eskultura, argazkigintza, grabatua, forja, buzingintza, urregintza, grabatua, marrazketa, artisautza, oihalgintza eta instalazioak.

Zenbatekoa: 21.000 euro, 7 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.

**g) Beste sorkuntza diziplina batzuetako obrak sortzea:** aurreko modalitateetako batean ere sartzen ez diren proiektuak, kultura sektorearen baitan garatzen direnak, ingurune digitalari, medio berriei eta arte digitalari lotutako proiektuak lehenetsiz.

Zenbatekoa: 24.000 euro, 8 proiekturi 3.000 euroko diru-laguntza emateko.



## Hartzaileak

Laguntza hauek 18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok jaso ahal izango du. Adinaren baldintza frogatzeko kontuan izan beharreko data eskabideak aurkezteko epearen azken eguna izango da.

## Dokumentazioa

Beka jaso ahal izateko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan:

### Eskatzaileari buruzko dokumentazioa

- Eskabidea (I. eranskina)
- Artista eskatzailearen ibilbidea (II. eranskina)
- NANaren fotokopia.
- Eskatzaileak deialdi honetan garatu beharreko kultura-diziplinari dagokionez ikastetxe ofizial eta publikoek emandako ikasketa-tituluak.

### Proiektuari buruzko dokumentazioa

- Proposamenaren laburpen fitxa (III. eranskina)
- Modalitate bakoitzari dagokion azalpen-memoria (IV. Eranskina) eta obraren lagina.

Eranskin guztiak web gune honetan daude eskuragarri:  
[www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/subvenciones](http://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/subvenciones)



## Aurkezpena

- Eskatera telematikoa [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean
- Aurrez aurreko eskaera:
  - Muxikebarriko Informazio Bulegoa (Basagoiti etorbidea, 77) Al.-Or.: 8:30-14:30
  - Getxoko herritarren arretarako edozein bulegotan.

## Aurkezteko epea

Hilabete, BAO n argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

---

## Informazio gehiago

- BAO
- [www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/subvenciones](http://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/subvenciones)
- [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)



**KULTURA SORMENA  
CREACIÓN CULTURAL**



**Getxoko Kultur Etxea**

Basagoiti etorbidea, 77  
48991 Getxo - BIZKAIA  
94 466 01 23

kulturetxea@getxo.eus  
www.getxo.eus



**Getxo**  
*bizi ezazu*



**Getxo**  
KULTUR ETXEA  
*bizi ezazu*